

Justizia Administrazioa

BARAKALDOKO LEHEN AUZIALDIKO 2 ZENBAKIKO EPAITEGIA

EDIKTUA, 77/01 ahozko judiziotik datorrena. 5204

Iragarkiak

Obra, Zerbitzu eta Horniduren Enkanteak eta Lehiaketak

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

LEHIAKETA PUBLIKOA, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren menpeko EAEko ikastetxe publikoetarako informatika sareak eta bere instalazioa homologatzeko tipoa finkatzeko. 5205

ETXEBIZITZA ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA

LEHIAKETA PUBLIKOA, Beasainen babes ofizialeko 36 etxebizitzaren itunpeko sustapena egiteko. 5207

Xedapen Orokorrak

JAURLARITZAREN LEHENDAKARITZA

Zk-1751

2/2002 LEGEA, martxoaren 21ekoa, Aurrekontuko Neurriei buruzkoa.

Eusko Legebiltzarrak ondoko legea onartu duela jakinarazten zaie Euskadiko herritar guztiei:

Aurrekontuko Neurriei Buruzko Legea

Administración de Justicia

JUZGADO DE PRIMERA INSTANCIA N.º 2 DE BARAKALDO

EDICTO dimanante del Juicio Verbal 77/01. 5204

Anuncios

Subastas y Concursos de Obras, Servicios y Suministros

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

CONCURSO PÚBLICO de determinación del tipo para la homologación de redes informáticas y su instalación para Centros Públicos de la CAPV dependientes del Departamento de Educación, Universidades e Investigación. 5205

DEPARTAMENTO DE VIVIENDA Y ASUNTOS SOCIALES

CONVOCATORIA PÚBLICA de promoción concertada de 36 viviendas de protección oficial en Beasain. 5207

Disposiciones Generales

PRESIDENCIA DEL GOBIERNO

Nº-1751

LEY 2/2002, de 21 de marzo, de medidas presupuestarias.

Se hace saber a todos los ciudadanos y ciudadanas de Euskadi que el Parlamento Vasco ha aprobado la siguiente:

Ley 2/2002, de 21 de marzo, de medidas presupuestarias.

ZIOEN ADIERAZPENA

Bi mila eta bigarren urtea, Euskal Autonomia Erkidegoko 2002ko Aurrekontu Orokorren Legearen proiektua onartu gabe hasi zen, eta, horregatik, berez jarri ziren indarrean Euskadiko Aurrekontu Erregimenari buruzko indarreko lege-xedapenen testu bateginaren IX. tituluko luzapen-arauak. Aipatutako testu batgina irailaren 27ko 1/1994 Legegintzako Dekretuaren bidez onartu zen. Hor jasotzen denez, ekonomia-ekitaldi baten hasieran urte horretako aurrekontu orokorrak onartuta ez badaude, luzatu egingo da urte horretara aurreko ekitaldian aurreikusitako baimenen indarraldia. Hala ere, indarraldia luzatu ahal izateko, oso kontuan eduki behar da, nolana ere, luzapen-erregimen orokorra erregulatzen duen araudia.

Ingurumari horretan, Eusko Legebiltzarrak urtarrilaren 23an onartutako 1/2002 Legea luzapen horren erregimenean txertatu da eta modulatu egin du erregimena, eta hori egin da, hain zuzen ere, aurrekontu-sekzio ugari eta EITBko eta Osakidetza aurrekontuak onartuz, baina baita diru-sarreraren eta gastuen egoerariak betearazteko xedapen osagarriak onartuz ere, adibidez, bermeak emateko xedapen osagarriak, langileen dotazio berriak sortzekoak, lansariak eta pentsioak gehitzeari buruzkoak, tasei buruzkoak, oinarrizko errentaren zenbatekoa gehitzeari buruzkoak, handitu daitezkeen kredituei buruzkoak edo itunpeko ikastetxeei eusteko ekonomia-moduluei buruzkoak.

Hala ere, nahiz eta aitortu urtarrilaren 23ko 1/2002 Legea garrantzitsua dela eta Legeak izaera subsidiario eta osagarria duela luzatutako aurrekontu orokorreko, edozein ekonomia-jarduerak eta Administrazioak berak behar dituzten ziurtasunak eta segurtasun juridikoaren printzipioak bidezko egiten dute zenbait neurri gehigarri hartzea, neurrian helburua baita aurrekusi gabeko baina, aldi berean, luzatuezineko zenbait jardun aurrera ateratzea, eta hori, bai jardunak presakoak edo beharrezkoak direlako, bai herritarrentzat eta gizartearentzat interesa dutelako, bai instituzioek konpromisoak hartu dituztelako, bai atzerapenek kalte larriak ekarriko lituzketelako.

Aipatutako ondorioetarako, lege honen helburua da luzapen-erregimeneko zuzkiduren eta urtarrilaren 23ko 1/2002 Legeak onartutako zuzkiduren osagarriak diren zenbait gastu-baimen ematea, horrela, batetik, gure erakundearen funtzionamendua ziurtatuko da, bestetik, ekonomia nahiz gizartearen aldetik garrantzi handikoak diren jardunei helduko zaie eta, azkenik, ziurtasuna eta segurtasun juridikoa emango zaizkio Euskal Autonomia Erkidegoko 2002ko Aurrekontu Orokorrek beteazteari.

Araua osatzeko, bertan jasotzen diren neurriak betearazteko beharrezko finantzazioa aurreikusten da. Finantzazio hori diruzaintzako gerakinen kontura eta zor-

EXPOSICIÓN DE MOTIVOS

El inicio de 2002 sin la aprobación del Proyecto de Ley de Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi para dicho ejercicio provocó la automática entrada en vigor del régimen de prórroga contemplado en el Título IX del texto refundido de las disposiciones legales vigentes sobre Régimen Presupuestario de Euskadi, aprobado por Decreto Legislativo 1/1994, de 27 de septiembre. Dicha norma prevé el supuesto de que si, al inicio de un ejercicio económico, no hubieran sido aprobados los Presupuestos Generales correspondientes se extienda al mismo la vigencia de las autorizaciones previstas en el ejercicio precedente. Tal extensión de vigencia, no obstante, debe tener lugar con observancia, en todo caso, de la normativa que regula con carácter general el régimen de prórroga.

En dicho contexto, la aprobación por el Parlamento Vasco de la Ley 1/2002, de 23 de enero, ha venido a insertarse y modular el régimen de dicha prórroga mediante la aprobación no sólo de un importante número de secciones presupuestarias y de los presupuestos de EITB y de Osakidetza para el ejercicio 2002 sino también de otras disposiciones complementarias a la ejecución de los estados de ingresos y gastos como, por ejemplo, las relativas a la prestación de garantías, la creación de nuevas dotaciones de personal, el incremento de retribuciones y pensiones, las tasas, el incremento de la cuantía de la renta básica, los créditos susceptibles de ampliación o los módulos económicos de sostenimiento de los centros concertados.

Sin embargo, aun reconociendo la importancia de la Ley 1/2002, de 23 de enero, así como su carácter subsidiario y complementario respecto de los Presupuestos Generales prorrogados, la necesaria certidumbre que debe acompañar toda actividad económica, y también la de la Administración, así como el principio de seguridad jurídica, aconsejan la adopción de un conjunto de medidas adicionales con objeto de permitir el desarrollo de determinadas actuaciones no previstas pero cuya ejecución resulta inaplazable, ya sea por su urgencia y necesidad, por su interés público y social, por los compromisos institucionales o por los graves perjuicios que se derivarían de su retraso.

A los efectos mencionados, por tanto, la presente ley tiene por objeto la concesión de determinadas autorizaciones de gasto que complementan las dotaciones en régimen de prórroga y las aprobadas por la Ley 1/2002, de 23 de enero, con objeto de asegurar el funcionamiento de nuestras instituciones, abordar actuaciones de considerable importancia económica y social y, asimismo, dotar de certidumbre y seguridad jurídica a la ejecución de los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi durante el ejercicio 2002.

La norma se completa con la previsión de la financiación necesaria para la ejecución de las medidas contempladas en la misma. Esta financiación se realizará

petze-eragiketetatik datozen diru-sarreraren kontura egingo da.

1. artikulua.– Kreditu gehigarriak eta beste baimen batzuk.

1.– Honako kredituak ematen dira: 41.718.773 euroko ordainketa-kreditu gehigarriak eta 4.920.000 euroko konpromiso-kreditu gehigarriak, lege honen eranskinetako banaketa zehatzaren arabera. Kredituon helburua ekintza zehatz batzuek eragindako gastu arrunta finantzatzea da; hona hemen ekintzak:

a) Eusko Legebiltzarraren eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren funtzionamendutik datozen beharrei erantzutea.

b) Giza eskubideak sustatzea arlo horretako behatokia bultzatuz. Behatokiaren bidez, aktiboki zaindu eta begiratuko dira pertsona guztien giza eskubideak eta askatasunak, eta bereziki, gure gizartearen balio etikoak degradatzen dituen bortxa fisikoa nahiz psikologikoa pairatzen duten kolektiboak.

c) Terrorismoaren biktimei laguntza ematea Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko Bulegoa sustatuz. Bulegoak azpiegitura iraunkorra izango du, bai eta langile-talde egokia ere, hain zuzen ere aukera emango duena biktimei eta edozein bortxa, txantaje, estortsio edo jazarpen jasaten duten pertsonen familiei arreta hurbi-lagokoa eta zuzenagokoa emateko, eta, halaber, balio izango duena euskal gizartearen elkartasun aktiboa islatzeko eta terrorismoaren biktimei aitormen etiko, moral eta materiala egiteko.

d) Indarkeriaren agerpide ugari dela-eta mehatxupean dauden pertsonen eta ondasunen zaintza eta segurtasuna.

e) Ertzaintzako kideen kopurua prebentzioko eta segurtasuneko gaur egungo beharretara egokitzea.

f) Euskadi Informazioaren eta Ezagutzaren Gizartearen Planetik datozen jardunak. Jardunon bidez, honako hauek bultzatu nahi dira: beharrezko kultura-aldaketa gertatzea (Konekta Zaitetz Ciudadan@), herritarrak Internetera sartzeko modua erraztea (Konekta Zaitetz programa) eta ekonomia berriko merkataritza elektronikoa eta enpresak sustatzea (Enpresa digitala ekimena), horren guztiaren bidez nabarmen aurreratuko baita guztiontzako informazio-gizartearen eraikitze proiektuan.

Ogasun eta Herri Administrazio Sailak aurreko baimenaren arabera egingo duen behin betiko kreditu-banaketa berri honako hauei emango zaie: bakoitzaren ezagutza-eremuak kontuan hartuz, Eusko Legebiltzarreko Erakunde eta Herrizaingo Batzordeari, Giza Eskubideen eta Herritarren Eskaren Batzordeari eta Industria, Merkataritza eta Turismo Batzordeari eta, beti, Ekonomia, Ogasun eta Aurrekontu Batzordeari.

2.– Honako kredituak ematen dira: 104.041.500 euroko ordainketa-kreditu gehigarriak eta 388.360.000

con cargo a remanentes de tesorería así como a los ingresos derivados de operaciones de endeudamiento.

Artículo 1.– Créditos adicionales y otras autorizaciones.

1.– Se conceden créditos adicionales de pago por importe de 41.718.773 euros y créditos adicionales de compromiso por importe de 4.920.000 euros, de conformidad con el desglose que se contiene en el anexo de la presente ley, con el fin de financiar el gasto corriente destinado a:

a) Atender las necesidades derivadas del funcionamiento del Parlamento Vasco y del Tribunal Vasco de Cuentas Públicas.

b) La promoción de los derechos humanos mediante el impulso de un observatorio que vele por la defensa activa de los derechos humanos y de las libertades de todas las personas y, especialmente, de aquellos colectivos que sufren la violencia física y psicológica que degrada los valores éticos de nuestra sociedad.

c) La atención y apoyo a las víctimas del terrorismo a través de la potenciación de la Oficina de Atención a las Víctimas del Terrorismo como una infraestructura permanente, dotada del personal adecuado, que permita una atención más cercana y directa a las familias de las víctimas y a las personas que sufren cualquier tipo de violencia, chantaje, extorsión o persecución, así como proyectar la solidaridad activa de la sociedad vasca y el reconocimiento ético, moral y material a las víctimas del terrorismo.

d) La vigilancia y seguridad de personas y bienes amenazados por las diferentes manifestaciones de la violencia.

e) La adecuación de los efectivos de la Ertzaintza a las necesidades actuales en el ámbito de la prevención y seguridad.

f) Las actuaciones derivadas de la ejecución del Plan Euskadi en la Sociedad de la Información y el Conocimiento dirigidas a propiciar el necesario cambio cultural (Konekta zaitetz Ciudadan@), la accesibilidad de los ciudadanos a Internet (Programa Konekta Zaitetz) y el fomento del comercio electrónico y de las empresas de la nueva economía (Iniciativa empresa digital), con el fin de avanzar sensiblemente en el proyecto de construir una sociedad de la información para todos.

De la distribución de créditos definitiva que realice el Departamento de Hacienda y Administración Pública en virtud de la anterior autorización se dará cuenta, atendiendo a sus respectivos ámbitos de conocimiento, a la Comisión de Instituciones e Interior, a la Comisión de Derechos Humanos y Solicitudes Ciudadanas, a la Comisión de Industria, Comercio y Turismo y, en todo caso, a la Comisión de Economía, Hacienda y Presupuestos del Parlamento Vasco.

2.– Se conceden créditos adicionales de pago por importe de 104.041.500 euros y créditos adicionales de

euroko konpromiso-kreditu gehigarriak, lege honen eranskinen banaketa zehatzaren arabera. Kredituen helburua ekintza zehatz batzuen inbertsio eta finantza-eragiketak finantzatzea da; hona hemen ekintzak:

a) Aurreko urteetan onartutako arlokako plangintza-jardunak. Jardunon bidez, erraztu egin nahi da hainbat esparrutara sartzeko bidea, eta esparruok hauexek dira: informazioaren gizarte berriaren zerbitzuak, teknologiaren garapena eta berrikuntza, Euskadiko ekoizpen-ehundura birsortzea eta enplegua sortzea. Jardunok, bereziki, hiru plan betearaztearen inguruan biltzen dira: batetik, Euskadi Informazioaren eta Ezagutzaren Gizarte Plan, bestetik, Zientzia eta Teknologiaren Euskal Plana 2001-2004 eta, azkenik, Ekonomia Sustatzeko Erakunde arteko Plana.

b) Euskadiko lurraldeen artean nahiz gizarte barruan kohesio handiagoa lortzea helburu duten jardunak, hala nola: bideetako azpiegiturak, azpiegitura hidraulikoak, portuetakoak eta tranbia nahiz tren bidezko garraio-sistema gauzatzea Ekonomia eta Gizarte Azpiegituren Planaren baitan (Euskadi 2000Hiru), betiere abenduaren 29ko 4/1999 Legearen II. tituluan ezarritako modu eta baldintzen arabera.

Bereziki, kredituak emango dira Ansion (Barakaldo) Nazioarteko erakustazoka berria eraikitzeko.

Ogasun eta Herri Administrazio Sailak aurreko baimenaren arabera egingo duen behin betiko kreditu-banaketa berri honako hauei emango zaie: bakoitzaren ezagutza-eremuak kontuan hartuz, Eusko Legebiltzarreko Industria, Merkataritza eta Turismo Batzordeari, Lurralde Antolamendu, Garraio eta Ingurumen Batzordeari eta, beti, Ekonomia, Ogasun eta Aurrekontu Batzordeari.

3.- Halaber, Erakunde Administrazioentzat entitate jakin batzuen inbertsio eta finantza-eragiketak finantzatzeko, baimena ematen zaie entitate horiei zorpetze-eragiketak ituntzeko, gehienez ere 116.933.000 euroraino, lege honen eranskinen banaketa zehatzaren arabera.

Ildo horretatik, eta lege honen hirugarren artikuluarri jarraiki, beharrezko neurriak hartuko dira Bahia de Bizkaia Gas SA eta Bahia de Bizkaia Electricidad SA proiektuetarako inbertsio-jardunak bermatzeko.

2. artikulua.- Finantzaketa.

Aurreko artikuluetan baimendutako ordainketa-kreditu gehigarriak diruzaintzako gerakinen edo zorpetze-eragiketen kontura finantzatzeko dira.

3. artikulua.- Zorpetze-eragiketen muga.

1.- Gehitu egiten da Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren zorpetze-muga, eta, ondorioz, abian diren zorpetze-eragiketen zenbatekoa, 2002ko

konpromiso por importe de 388.360.000 euros, de conformidad con el desglose que se contiene en el anexo de la presente ley, con el fin de financiar las inversiones y operaciones financieras destinadas a:

a) Las actuaciones derivadas de la planificación sectorial aprobada en ejercicios anteriores dirigidas a facilitar el acceso a los servicios de la nueva Sociedad de la Información, al desarrollo tecnológico y la innovación, a la investigación estratégica, a la regeneración del tejido productivo de Euskadi y a la creación de empleo y concentradas, fundamentalmente, en la ejecución del Plan Euskadi en la Sociedad de la Información y el Conocimiento, del Plan Vasco de Ciencia y Tecnología 2001-2004 y del Plan Interinstitucional de Promoción Económica.

b) Las actuaciones destinadas al logro de una mayor cohesión territorial y social en Euskadi a través de la realización de infraestructuras viarias, hidráulicas, portuarias y del sistema de transporte tranviario y ferroviario en el marco del Plan de Infraestructuras Económicas y Sociales (Euskadi 2000Tres) y en los términos y con las condiciones establecidas en el Título II de la Ley 4/1999, de 29 de diciembre.

En particular, se conceden créditos para la construcción del nuevo recinto ferial de la Feria Internacional de Muestras situado en Ansio (Barakaldo).

De la distribución de créditos definitiva que realice el Departamento de Hacienda y Administración Pública en virtud de la anterior autorización se dará cuenta, atendiendo a sus respectivos ámbitos de conocimiento, a la Comisión de Industria, Comercio y Turismo, a la Comisión de Ordenación Territorial, Transportes y Medio Ambiente y, en todo caso, a la Comisión de Economía, Hacienda y Presupuestos del Parlamento Vasco.

3.- Asimismo, con el fin de financiar sus inversiones y operaciones financieras, se autoriza a determinadas entidades de la Administración Institucional a concertar operaciones de endeudamiento hasta un máximo de 116.933.000 euros, de conformidad con el desglose que se contiene en el anexo de la presente ley.

En particular, se establecen las medidas necesarias para, de conformidad al artículo tercero de esta ley, garantizar las actuaciones inversoras en los proyectos Bahia de Bizkaia Gas, S.A y Bahia de Bizkaia Electricidad, S.A.

Artículo 2.- Financiación.

Los créditos adicionales de pago autorizados en los artículos anteriores se financiarán con cargo a remanentes de tesorería así como a operaciones de endeudamiento.

Artículo 3.- Límite de las operaciones de endeudamiento.

1.- Se incrementa el límite de endeudamiento de la Administración de la Comunidad Autónoma de tal modo que el importe de las operaciones de endeudamiento

abenduaren 31n, gehienez ere 1.550.000.000 eurokoa izan daiteke, eta hori edozein dela ere eragiketok dokumentatzeko modua.

2.- Gehitu egiten da zuzenbide pribatuean dauden entitateen kanpo-zorpetzearen gehienezko muga, eta, ondorioz, 116.933.000 euro gehiago izendatzen dira.

XEDAPEN GEHIGARRI BAKARRA.

2002. urtearen hasieran luzatutako baimenek eta kredituek bat egin beharko dute Euskadiko Aurrekontu Erregimenari buruzko indarreko lege-xedapenen testu bateginaren IX. tituluko luzapen-arauekin, hain zuzen ere irailaren 27ko 1/1994 Legegintzako Dekretuaren bidez onartutako testukoekin. Eta hori guztia, hala ere, ez da eragozpen izango urtarrilaren 23ko 1/2002 Legean eta lege honetan ezarritako baimenatarako.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa. - Baimenak.

1.- Baimena ematen zaio Jaurlaritzari lege honetan jasotzen den guztia garatu eta betearazteko behar diren xedapen guztiak emateko, betiere Ogasun eta Herri Administrazio sailburuak proposatu ondoren.

2.- Baimena ematen zaio Ogasun eta Herri Administrazio Sailari diru-sarreraren era gastuen egoera-orriak lege honetan ezarritako xedapenetara egokitzeko behar diren egokitzapen teknikoak egiteko eta aurrekontuko programak, zerbitzuak eta kontzeptuak sortzeko.

3.- Baimena ematen da Euskal Autonomia Erkidegoko Erakunde Administrazioa osatzen duten entitateen aurrekontuak lege honetan ezarritako xedapenetara egokitzeko behar diren aldaketak egiteko.

Bigarrena. - Indarrean jartzea.

Lege hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

to en circulación, cualquiera que sea la forma en que se documenten, a 31 de diciembre de 2002 no supere la cantidad de 1.550.000.000 de euros.

2.- Se incrementa en 116.933.000 euros el límite máximo de endeudamiento externo de las entidades que se rigen por el derecho privado.

DISPOSICIÓN ADICIONAL ÚNICA

Las autorizaciones y créditos prorrogados al inicio del ejercicio 2002 se sujetarán al régimen de prórroga establecido por el Título IX del texto refundido de las disposiciones legales vigentes sobre Régimen Presupuestario de Euskadi, aprobado por Decreto Legislativo 1/1994, de 27 de septiembre, sin perjuicio de las autorizaciones contenidas en la Ley 1/2002, de 23 de enero, y en la presente ley.

DISPOSICIONES FINALES

Primera. - Autorizaciones.

1.- Se autoriza al Gobierno para dictar, a propuesta de la Consejera de Hacienda y Administración Pública, las disposiciones necesarias para el desarrollo y ejecución de cuanto se prevé en la presente ley.

2.- Se autoriza al Departamento de Hacienda y Administración Pública para la realización de las adaptaciones técnicas y la creación de los programas, servicios y conceptos presupuestarios que sean necesarios para la adecuación de los estados de ingresos y gastos a las disposiciones establecidas en la presente ley.

3.- Se autorizan las modificaciones de los presupuestos de las entidades integrantes de la Administración Institucional de la Comunidad Autónoma de Euskadi que sean necesarias para su adecuación a las disposiciones establecidas en la presente ley.

Segunda. - Entrada en vigor.

La presente ley entrará en vigor al día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

ERANSKINA

a) Ordainketa-kreditu gehigarriak.

JARDUNAK	Ordainketa-kreditua
Erakundeentzako zuzkidurak handitzea	926.175
Giza eskubideak eta segurtasuna	20.492.598
Euskadi Informazioaren eta Ezagutzaren Gizartean Plana	20.300.000
AZPIGUZTIRAKOA	41.718.773
Euskadi Informazioaren eta Ezagutzaren Gizartean Plana	12.000.000
Zientzia eta Teknologiaren Euskal Plana, 2001-2004	15.000.000
Nazioarteko erakustazoka (Bilbao Exhibition Centre)	12.021.000
Azpiegiturak	65.020.500
AZPIGUZTIRAKOA	104.041.500
GUZTIRA	145.760.273

b) Konpromiso-kreditu gehigarriak

JARDUNAK	Konpromiso-kredituak				
	2003	2004	2005	2006	Guztira
Euskadi Informazioaren Gizartean Plana	2.460.000	2.460.000			4.920.000
AZPIGUZTIRAKOA	2.460.000	2.460.000			4.920.000
Zientzia eta Teknologiaren Euskal Plana, 2001-2004 (1)	13.370.000	13.040.000	9.600.000	1.950.000	51.030.000
Nazioarteko erakustazoka (2)	12.020.000	12.020.000	12.020.000	12.020.000	300.510.000
Lan eta azpiegitura hidraulikoak	28.090.000	8.730.000			36.820.000
AZPIGUZTIRAKOA	53.480.000	33.790.000	21.620.000	13.970.000	388.360.000
GUZTIRA (3)	55.940.000	36.250.000	21.620.000	13.970.000	393.280.000

(1) Konpromiso-kredituak, 2007-2008rakoak: guztira, 13.070.000 euro.

(2) Konpromiso-kredituak, 2007-2027rakoak: guztira, 252.430.000 euro.

(3) Konpromiso-kredituak, 2007-2027rakoak: guztira, 265.500.000 euro.

c) Erakunde Administrazioiko entitateentzako zorpetze-baimena

ENTITATEA	JARDUNA	Zorpetzearen zenbatekoa
Energiaren Euskal Erakundea	Bahía de Bizkaia Gas, S.A. eta Bahía de Bizkaia Electricidad, S.A. proiektuak	101.933.000
Eusko Tren	Eusko Tren XXI Planaren inbertsioak	15.000.000
	GUZTIRA	116.933.000

ANEXO

a) Créditos adicionales de pago.

ACTUACIONES	CRÉDITO DE PAGO
<i>Ampliación dotaciones institucionales</i>	926.175
<i>Derechos Humanos y Seguridad</i>	20.492.598
<i>Plan Euskadi en la Sociedad de la Información y el Conocimiento</i>	20.300.000
<i>SUBTOTAL</i>	41.718.773
<i>Plan Euskadi en la Sociedad de la Información y el Conocimiento</i>	12.000.000
<i>Plan Vasco de Ciencia y Tecnología 2001-2004</i>	15.000.000
<i>Feria Internacional de Muestras (Bilbao Exhibition Centre)</i>	12.021.000
<i>Infraestructuras</i>	65.020.500
<i>SUBTOTAL</i>	104.041.500
<i>TOTAL</i>	145.760.273

b) Créditos adicionales de compromiso.

ACTUACIONES	CRÉDITOS DE COMPROMISO				
	2003	2004	2005	2006	Total
<i>Plan Euskadi en la Soc. de la Información</i>	2.460.000	2.460.000			4.920.000
<i>SUBTOTAL</i>	2.460.000	2.460.000			4.920.000
<i>Plan Vasco de Ciencia y Tecnología 2001-2004 (1)</i>	13.370.000	13.040.000	9.600.000	1.950.000	51.030.000
<i>Feria Internacional (2)</i>	12.020.000	12.020.000	12.020.000	12.020.000	300.510.000
<i>Obras e Inf. Hidráulicas</i>	28.090.000	8.730.000			36.820.000
<i>SUBTOTAL</i>	53.480.000	33.790.000	21.620.000	13.970.000	388.360.000
<i>TOTAL (3)</i>	55.940.000	36.250.000	21.620.000	13.970.000	393.280.000

(1) Créditos de compromiso 2007-2008 por un total de 13.070.000 euros.

(2) Créditos de compromiso 2007-2027 por un total de 252.430.000 euros.

(3) Créditos de compromiso 2007-2027 por un total de 265.500.000 euros.

c) Autorización de endeudamiento a entidades de la Administración Institucional.

Entidad	Actuación	Importe endeudamiento
<i>Ente Vasco de la Energía</i>	<i>Proyectos de Bahía de Bizkaia Gas, S.A. y Bahía de Bizkaia Electricidad, S.A.</i>	101.933.000
<i>Eusko Tren</i>	<i>Inversiones Plan Eusko Tren XXI</i>	15.000.000
	<i>TOTAL</i>	116.933.000

Beraz, lege honi men egiteko eta men eginarazteko agintzen diet, norbanako zein agintari direla, Euskadiko herritar guztiei.

Vitoria-Gasteiz, 2002ko martxoaren 21a.

Lehendakaria,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

OGASUN ETA HERRI ADMINISTRAZIO SAILA

Zk-1752

AGINDUA, 2002ko otsailaren 26koa, Ogasun eta Herri Administrazio sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta bere Erakunde Autonomoen lanpostuak zerbitzu-eginkizunen nahiz bitarteko funtzionarioen bidez betetzeko prozedura arautzen duena.

Maiatzaren 2ko 74/2001 Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren eta bere erakunde autonomoen zerbitzuko funtzionarioen 2001eko lan baldintzak arautzeko hitzarmena onartzen duenak, bere 53. artikuluan aldatu du bete gabe dauden lanpostuak aldi baterako zerbitzu-eginkizunen bidez betetzeko era. Aldaketa aipagarrienak honako hauek ditugu: hutsik dauden lanpostu batzuk zerbitzu-eginkizunen bidez betetzeko derrigortasuna; bete gabeko lanpostuen zerrenden barruan orain onartzea aurrekontuko lanpostuak nahiz aurrekontuz kanpokoak; lan-poltsei buruzko Akordioaren arabera lanean diharduten langileen eta justu beherago dagoen Taldeko langileen partaidetza; eta azkenik hautagaiak aukeratzeko irizpide objektiboak sartzea.

Aldaketa hauen garrantziak behartu du prozedurari eta materialei dagozkien aldeak eta ikuspegiak, hain zuzen ere bere ezaugarrien ondorioz lan baldintzak arautzen dituen Dekretuan jaso ezinekoak direnak, are gehiago zehaztera. Horren ondorioz, agindu hau, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta bere erakunde autonomoen lanpostuak zerbitzu-eginkizunen nahiz bitarteko funtzionarioen bidez betetzeko prozedura arautzen duena, onetsia izan da.

Ahalik eta prozedurarik azkarrena ezartzeko ahaleginak egin dira. Prozedura horren baitan, erakundearen eraginkortasuna hobetzeko asmoz, premiazko lanpostuen betetze beharrak bat etorri behar du hautagaririk egokiena aukeratzearekin.

Por consiguiente, ordeno a todos los ciudadanos y ciudadanas de Euskadi, particulares y autoridades, que la guarden y hagan guardarla.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 21 de marzo de 2002.

El Lehendakari,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

DEPARTAMENTO DE HACIENDA Y ADMINISTRACIÓN PÚBLICA

Nº-1752

ORDEN de 26 de febrero de 2002, de la Consejera de Hacienda y Administración Pública, que regula el procedimiento para la provisión transitoria, en comisión de servicios o como personal funcionario interino, de puestos de trabajo de la Administración General de la Comunidad Autónoma del País Vasco y de sus Organismos Autónomos.

El Decreto 74/2001, de 2 de mayo, por el que se aprueba el Acuerdo regulador de las condiciones de trabajo para el año 2001 del personal funcionario al servicio de la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi y de sus Organismos Autónomos modifica, en su artículo 53, la provisión transitoria de los puestos de trabajos sin ocupantes en régimen de comisión de servicios. Constituyen los principales cambios: la obligatoriedad de proveer en comisión de servicios ciertas vacantes; la ampliación a vacantes presupuestarias y no presupuestarias; la participación del personal que se encuentra trabajando en el ámbito del Acuerdo de las bolsas de trabajo y de los funcionarios y funcionarias del Grupo inmediatamente inferior y, por último, la incorporación de criterios objetivos para la selección de las personas candidatas.

La trascendencia de estos cambios obliga a una mayor concreción de aspectos procedimentales y materiales, que por sus características no pueden ser recogidos en el Decreto regulador de condiciones de trabajo. A ello obedece la aprobación de la presente Orden, por la que se regula el procedimiento para la provisión transitoria, en comisión de servicios o como personal funcionario interino, de puestos de trabajo de la Administración General de la Comunidad Autónoma del País Vasco y de sus Organismos Autónomos.

Se ha tratado de establecer un procedimiento lo más ágil posible, que conjugue las necesidades de provisión urgente y la selección de la persona más adecuada, con el fin de mejorar la eficacia de la organización.